



Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua  
Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural

ATZERRITARTASUN ESKUBIDEAREN GAIAK

# TUTORETZAPEKOAK IZAN DIREN ADIN TXIKIKOAK ETA GAZTEAK; Erreformaren arau-aldaketak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES





**2021eko azaroaren 9an urriaren 19ko 903/2021 errege Dekretua** sartu zen indarrean, eta 4/2000 Lege Organikoko araudia, Espainian atzerritarren eskubideen eta askatasunen eta haien gizarteratzearen ingurukoa, aldatu zuen.

Hori dela eta, Eusko jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailari atxikita dagoen BILTZEN Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuaren sail juridikotik eta , atzerritartasun gaietako Euskadiko Zerbitzu Juridikoaren Aholku Saretik dokumentu hau egin dugu tutoretzapean egon diren adin txikikoen eta gazteen egoera administratiboaren inguruko araudiaren aldaketak sistematizatzeko.

Argitalpen honek aldaketei buruzko gairik garrantzitsuenak jasotzen ditu, ezarritako prozeduren inguruko informazio orientatzailea eskainiz, tutoretzapean egon diren adin txikikoek eta gazteek araudi berrian ageri diren bakoitzaren beharretara egokituta etxebizitza-baimenak jaso ditzaten,

Urriaren 19ko 903/2021 Errege Dekretuaren arabera, araudia idatzi aurretik zeuden arauak ez zetozen bat tutoretzapean egon ziren adin txikiko eta gazte horiekin, ezta erakunde publikoek eta pribatuek sustatutako hezkuntzako edo gizartean eta lan-munduan sartzeko programekin ere, betiere, adin nagusitasunera eta bizitza independentea izatera heltzen laguntzeko asmoz. Bere azalpenean, aipatutako Errege Dekretuak berresten du praktikan dokumentaziorako zailtasun asko zeudela eta, horren ondorioz, irregulartasunera behartuta zeudela, gizarteratzeari eta integratzeari negatiboki eraginez.

## **ZER ALDAKETA EKARRI DITU ERREFORMA HORREK?**

Batez ere, inoren kargura ez dauden adingabe atzerritar horiek adin-nagusitasunera iritsitakoan Espainian bizitzeko araubide propioa sortu da, eta egokitzapen jakin batzuk egin dira adingabe horien dokumentazio-prozesuan.

Horrela, desagertu egin da irabazi-asmorik gabeko egoitzaren erregimenaren aplikazioa, izan ere, jasotako berezitasunak gorabehera, zaila zen gazte horientzat hori onartzea.

Eta egia bada ere adin-nagusitasunera iristean oraindik ere nahikoa baliabide ekonomiko egiaztatu behar direla, aldaketarekin, baldintza hori murriztu egiten da, IPREMek (Eragin Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoa) erreferentea izateari uzten baitio, eta erreferentziako balio ekonomiko gisa ordezkatzen da pertsona bakarreko unitate moduan jasotzeko eskubidea izango lukeen gehieneko Bizitzeko Gutxieneko Errentarekin. Ez da ahaztu behar enplegu batetik, gizarte-sistematik eta beste batzuetatik datozen diru-sarrerak konputatzeko aukera ematen dela.

## **ZER BESTE EGOKITZAPEN EGIN DIRA?**

Inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarren bizileku-baimenari buruzko prozedurari buruzko jarduketan hasiera adierazten da, aberrirratzea ezinezkoa dela egiaztatu ondoren eta, nolana ere, adingabea adingabeak babesteko zerbitzu eskudunen esku jarri zenetik laurogeita hamar egun igaro ondoren.

Halaber, lanean hasteko adinera heltzen direnean lan egiteko gaitzen dituen egoitza-baimenak ezartzen dira eta horien jarraipena errazten da, baita baimen gehienen iraupenaldia eta haien berrikuntza ere. Horri esker, ibilbideak eta lan-merkatuak sarbidea errazten dira.



#### 4 ATZERRITARTASUN ESKUBIDEAREN GAIAK

Beraz, honako premisa honetatik abiatzen gara: bizileku-baimena lortzeko aukera, lan egiteko baimena ematen duena, 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamenduaren 196. Artikuluaren arabera; baina, **zer gertatzen da adin nagusitasunera heltzen den gaztearen egoera administratiboarekin?**

Kasu horietan, aipatutako Erregelamenduaren 197. eta 198. artikuluetan ezarritakoak jarduten du, bai emandako baimena berritzeari dagokionez, bai hurrenez hurren, adin-nagusitasunera iristean bizileku-baimenaren titularra ez den tutoretzapekoa izan denarentzat ezohiko egoeren ondoriozko baimen-eskaera bati dagokionez.

Egoerak desberdinak dira, betiere, kontuan izanik tutoretzapean egon den gaztea adin nagusitasunera bizileku-baimenarekin edo hori gabe heltzen den.

Jarraian, erantsita dauden fitxetan kasuok azalduko ditugu (informazio orientagarriarekin), eta, baita urriaren 19ko 903/2021 Errege Dekretuak, 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua aldatzen duenak, xedapen iragankor bakarrean 18 eta 23 urte bitartean tutoretzapean egon diren gazteentzat dituen xedapenak ere.



# 1. TUTORETZAPEKO ADIN TXIKIKOAK

<b>KASUA ETA BAIMEN MOTA</b>	<p>Laguntzarik ez duten adin txikikoen aldi baterako egoitza-baimena</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2 urteko iraupena</li> <li>• Lan egiteko aukera dago (besteren kontura, lan egiteko adina badu)</li> </ul>
<b>INPRIMAKIAREN EREDUA</b>	<p>EX01</p> <p>196. artikuluaen hasiera- "Adin txikikoen Erakunde Publiko baten tutoretzapean, zaintzapean, edo aldi baterako babespean dauden laguntzarik gabeko atzerriko adin txikikoak"</p>
<b>BALDINTZAK ETA DOKUMENTAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarrean dagoen pasaporte (bidaiatzeko titulua edo inskripzio-zedula)</li> <li>• Adingabeak babesteko zerbitzuaren ordezkariaren egiaztagiriak</li> <li>• Tutoretza, zaintza, aldi baterako babesa edo begiralea egiaztatzen duen dokumentua.</li> <li>• Izanez gero, Fiskaltzaren dekretua.</li> </ul> <p><a href="http://extranjeros.inclusion.gob.es/es/informacioninteres/InformacionProcedimientos/Ciudadanosnocomunitarios/hoja062/index.html">http://extranjeros.inclusion.gob.es/es/informacioninteres/InformacionProcedimientos/Ciudadanosnocomunitarios/hoja062/index.html</a></p>
<b>PROZEDURA</b>	<p>Aberrirratzea ezinezkoa bada, eta, nolahi ere, adingabearen babeserako zerbitzuaren esku gelditu zenetik 90 egun igaro badira.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ofizioz, Atzerriartasun Bulegoak edo adingabeak babesteko zerbitzuak eskatuta.</li> </ul>
<b>BERRITZEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ofizioz, Atzerriartasun Bulegoak (Alde batek ere eska dezake)</li> <li>• Egoerak bere horretan jarraitzen badu</li> <li>• 3 urteko berritzea</li> </ul>



## 2. ADIN NAGUSITASUNERA EGOITZA BAIMENAREKIN HELTZEA

<b>KASUA ETA BAIMEN MOTA</b>	<p>Laguntzarik gabeko adin txikikoa izateagatik, aldi baterako egoitza-baimena berritzea</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• 2 urteko iraupena (2 urtero berritu daiteke)</li><li>• Lan egiteko aukera dago (bere kontura eta beste baten kontura)</li></ul>
<b>INPRIMAKIAREN EREDUA</b>	<p>EX01</p> <p>197. artikulua berrituta "Aurretik tutoretzapean egon den adin txikikoa, eta adin nagusitasunera heltzean egoitza-baimena duena"</p>
<b>BALDINTZAK ETA DOKUMENTAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Indarrean dagoen pasaporte edo bidaiatzeko titulua</li><li>• Baliabide ekonomiko nahikoak izatea; Bizitzeko Gutxieneko Errentatik, enplegutik, gizarte-sistematik edo beste non-baitetik lortutakoak. Erakunde publiko edo pribatu bateko programa baten mende egotea.</li><li>• Espainiako aurrekari penalen balorazioa (Zigorra betetzea, indultua edo zigorra etetea kontuan hartuta)</li><li>• Erakunde publikoen (formazioaren jarraipena, gizarteratzea) eta erakunde pribatuen (programako hezkuntza-helburuak eta helburu soziorabialak betetzea) balorazioa.</li></ul> <p><a href="http://extranjeros.inclusion.gob.es/es/informacioninteres/InformacionProcedimientos/Ciudadanosnocomunitarios/hoja063/index.html">http://extranjeros.inclusion.gob.es/es/informacioninteres/InformacionProcedimientos/Ciudadanosnocomunitarios/hoja063/index.html</a></p>
<b>PROZEDURA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Atzerriko pertsona (edo ordezkariak)</li><li>• Epea: Indarraldia amaitu eta 60 egun natural (eta hurrengo 90 egunen barruan)</li><li>• Tasa´: 790 Eredua 052 Kodea 2.2 epigrafea "Aldi baterako egoitza-baimena berritzea"</li></ul>



### 3. ADIN NAGUSITASUNERA EGOITZA BAIMENIK GABE HELTZEA

<b>KASUA ETA BAIMEN MOTA</b>	<p>Salbuespen egoera dela eta, tutoretzapean egon den eta adin nagusitasunera heldu den pertsonarentzako aldi-baterako egoitza-baimena</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2 urteko iraupena (2 urtero berritu daiteke)</li> <li>• Lan egiteko aukera dago (bere kontura eta beste baten kontura)</li> </ul>
<b>INPRIMAKIAREN EREDUA</b>	<p>EX10</p> <p>Hasierako egoitza, 198. artikulua "Aurretik tutoretzapean egon den adin txikikoa, eta adin nagusitasunera heltzean egoitza-baimenik ez duena"</p>
<b>BALDINTZAK ETA DOKUMENTAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarrean dagoen pasaporte edo bidaiatzeko titulua</li> <li>• Adin txikikoen babeserako zerbitzu batek legezko tutoretza, zaintza, edo aldi bateko babesa izatea (tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa eta adin txikikoen babeserako zerbitzuaren gomendioa).</li> <li>• Gizarteratzea sustatzeko prestakuntza-ekintzetan parte-hartze egokia izan dutela egiaztatzen duen dokumentazioa eta/edo helburu hezitzaileak edo soziolaboralen programa bete izanaren ziurtagiria (eskumena duten erakunde publiko eta pribatuen txostenak).</li> <li>• Baliabide ekonomiko nahikoak izatea; Bizitzeko Gutxieneko Errentatik, enplegutik, gizarte-sistematik edo beste non-baitetik lortutakoak. Erakunde publiko edo pribatu bateko programa bat izatea.</li> <li>• Espainian edo aurretik bizi izan diren herrialdeetan aurrekari penalik ez izatea</li> </ul> <p><a href="http://extranjeros.inclusion.gob.es/es/informacioninteres/InformacionProcedimientos/Ciudadanosnocomunitarios/hoja064/index.html">http://extranjeros.inclusion.gob.es/es/informacioninteres/InformacionProcedimientos/Ciudadanosnocomunitarios/hoja064/index.html</a></p>
<b>PROZEDURA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Atzerriko pertsona</li> <li>• Epea: 18 urte bete eta 60 egun natural (eta hurrengo 90 egunen barruan).</li> <li>• Tasa: 790 Eredua 052 Kodea 2.5 Epigrafea "salbuespen-egoerak direla eta etxebizitza-baimena ematea".</li> </ul>



## 4. 18 ETA 23 URTE ARTEKO GAZTEAK (xedapen iragankor bakarra)

<b>KASUA ETA BAIMEN MOTA</b>	<p>Salbuespen egoera dela eta, tutoretzapean egon den eta adin egoera hauetakoren batean dagoen pertsonarentzako aldi-baterako egoitza-baimena:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Erreformaren aurretik, baimenik gabe heldu zen adin nagusitasunera eta ezin izan zituen baimena emateko eskatzen zituzten baldintzak egiaztatu*</li><li>• Adin nagusitasunera baimenarekin heldu zen, baina ezin izan du berritu aurreko erreformako baldintzekin</li><li>• 2 urteko iraupena (2 urtero berritu daiteke)</li><li>• Lan egiteko aukera dago (bere kontura eta beste baten kontura)</li></ul>
<b>INPRIMAKIAREN EREDUA</b>	<p>EX10</p> <p>Hasierako egoitza, 198. artikulua eta DT bakarra "Egoitza-baimenik ez duen eta tutoretzapean egon den 18 eta 23 urte bitarteko atzerriko gaztea"</p>
<b>BALDINTZAK ETA DOKUMENTAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• 198. artikuluan zehazten den dokumentazioa</li><li>• Adingabeak babesteko erakundearen ziurtagiria, gizarteratzeko prestakuntza-ekintzetan eta programatutako jardueretan parte hartu duela egiaztatzen duena, babes-zerbitzuaren eskura egon zela egiaztatzen duen egiaztagiria-ekin ordezkatu da*</li></ul>
<b>PROZEDURA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Atzerriko pertsona</li></ul>





## 5. 18 ETA 23 URTE ARTEKO GAZTEAK (xedapen iragankor bakarra)

<b>KASUA ETA BAIMEN MOTA</b>	<p>197. artikuluan aurreikusten den baimena, oraingo idazketan (laguntzarik gabeko adin txikikoa izateagatik, aldi baterako egoitza-baimena berritzea) kasu hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erreformaren aurretik, baimena berritu zioten, baina ez dio lan egiteko gaitasunik ematen</li> <li>• 2 urteko iraupena (2 urtero berritu daiteke)</li> <li>• Lan egiteko aukera dago (bere kontura eta beste batentzat)</li> </ul>
<b>INPRIMAKIAREN EREDUA</b>	<p>EX01</p> <p>197. artikulua berrituta "Aurretik tutoretzapean egon den adin txikikoa, eta adin nagusitasunera heltzean egoitza-baimena duena"–Xedapen iragankor bakarra</p>
<b>BALDINTZAK ETA DOKUMENTAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarrean dagoen pasaporte</li> <li>• Atzerritarren Nortasun Txartela (TIE)</li> </ul>
<b>PROZEDURA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Atzerriko pertsona (edo ordezkariak)</li> <li>• "...Edozein unetan..."</li> <li>• Tasarik gabe</li> </ul>

## INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

### **Biltzen - Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua**

Arlo juridikoa; atzerritartasunaren inguruko arreta juridikoa (9:30-14:00, telefonoz edo posta elektronikoaren bitartez).

- Erabiltzaileentzat: tel. 900 840 890  
asesoria@euskadi.eus
- Profesionalentzat: tel. 94 400 18 09  
juridika@biltzen.org

<https://biltzen.org>